

Aparteko eserlekuaren baldintzak

Bidaiariak Extra seat edo eserleku osagarriko zerbitzua (aurrerantzean, "Zerbitzua") kontratatu ahal izango du: horretarako erosketa-prozesuan adierazitako prezio osagarria ordaindu beharko du eta aplikagarri zaizkion baldintza hauek berariaz onartu.

Zerbitzu honek bere izenera, bere toki propioaz gain, ondoko tokia erreserbatzeko modua ematen dio Bidaiariari, baldintza hauekin bat badator, beti ere:

Bidaiari bakoitzeko eserleku osagarri bana bakarrik kontrata daiteke eta Bidaiariak berak hartutako eserlekuaren ondokoa izan beharko du, nahitaez.

Eserleku osagarria automatikoki esleituko zaio Bidaiariari. Edonola ere, Bidaiaria aldeztetik esleitutakoa ez den beste eserleku batera aldatzeak une bakoitzean adierazitako kostua ekarriko du.

Eserleku osagarria ezin izango da inola ere erabili eserleku osagarrian bertan guztiz uztea galarazten duten pisua edo neurriak dituen, segurtasun-uhalez behar bezala eta egonkortasunez asegura ez daitekeen edo gainerako bidaiarien edo hegaldiaren beraren erosotasuna edo segurtasuna arriskuan jar dezakeen ekipajea eramateko. Eserleku osagarria ezin izango da, halaber, animaliak garraiatzeko erabili, bere tamainak edo garraiatzeko kutxarenak axola gabe, ezta ekipaje edo merkantzia arriskutsu edo debekatu ere, Vueling-en Garraio Baldintza Orokorrei edo aplikagarria den araudiari jarraiki.

136x47x25 cm-ko tamaina edo 75 kg-ko pisua daukaten musika-tresna edo antzeko objektuak ez dira eserleku osagarrian garraiatuak izateko onartuak izango eta kendu eta hegazkineko sotoan kargatu ahal izango dira, eta kostu osagarria izango dute.

Bai hegazkineratzeko atean, baita hegazkinean ere,

konpainiaren araudia urratzen duen eskuko ekipajea, hau da, aurrez aipaturiko kopurua, pisua edota neurriak gainditzen dituena, kendu egingo da eta hegazkineko sotoan kargatuko, aparteko kostu batekin.

Vueling-ek ez du ardurarik izango hegazkineratzeko atean baztertzen diren tamaina handiko ekipaje edo fardelekiko, Bidaiariak bere borondatez bazter uzten baditu.

Jatorri edo helmugako herrialdean indarrean dauden segurtasun-arrazoientzat, gerta daiteke hainbat artikulua hegaldian ez onartzea, dena ere zenbait produktu eskuko ekipaje gisa garraiatzeko indarrean dauden araei kalterik egin gabe.

Zerbitzua kontratatzen duen Bidaiariak check-ina fakturazio-mahaian egin beharko du derrigor, eta ezin izango du Vueling-en webgunearen bitartez egin eta arreta ematen dioten langileekin bere ekipajearen neurriak eta pisua egiaztatu beharko ditu, segurtasun-gunera sartu baino lehen.

Bidaiariak bere ekipajeak beste bidaiariei eragindako kalte-galeren aurrean erantzungo du, segurtasun-uhalez behar bezala eutsita ez eramateagatik adibidez, Vueling-en arduragabekeriagatik ez bada.

Vueling Airlines, S.A.-k nahierara eskaini ahal izango du Zerbitzu hau, hainbat parametro aintzat hartuta, eta bere gain gordetzen du baldintzak edozein unetan aldatzeko eskubidea.